

**Otsailaren 11:
Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna**

Egin bat Elhuyarren #O11Erakusleihoak ekimenarekin eta jantzi zure erakusleihoa emakume zientzialari batekin!



Arrasate, 2026ko azaroa

Merkatari hori:

Arrasateko Udalak, Elhuyarrekin batera, udalerrian abian jarriko duen “Otsailaren 11ko erakusleihoak” ekimenean parte hartzera gonbidatu nahi zaitu.

Otsailaren 11n Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna da nazioartean, eta, hori dela eta, 2026ko otsailaren 2tik 11ra, Arrasateko saltokiak emakume zientzialariez jantzi nahi ditugu.

2021ean hasi eta gaur arte, Euskal Herriko 600 saltoki apaintzea lortu du Elhuyarrek, eta zu ere batzea nahi dugu.

Nola har dezakezu parte?

Emakume zientzialari bat proposatuko dizuegu saltoki bakoitzean erakutsi beharreko erreferente gisa; zuek, haren ikerketa-arloa inspirazio gisa hartuta, zuen erakusleihoa apainduko duzue. Udalak erakusleihoan jarri beharreko horma-irudi bat helaraziko dizue emakumearen irudiarekin, eta hari buruzko informazioa ere bidaliko dizue dossier txiki batean, bere ibilbidea hobeto ezagutzeko.

Irudimena, zuen esku! Dena den, dosierrean ere jasoko dituzue erakusleihoak apaintzeko ideiak.

Webgunea

[Ekimenaren webgunea](#), 2026ko otsailaren 11ri eskainitako atal bat egongo da. Bertan, 2026ko kanpaina parte hartuko duten denden zerrenda eta zuek bidalitako argazkiak bilduko ditugu.

[2025eko argazkiak ikusteko egin klik hemen](#)

#O11Erakusleihoak ginkana

12 saltoki edo gehiagoko udalerrietan, #O11erakusleihoak ginkana publikoa jarriko dugu martxan. Telefonorako aplikazio baten bidez egiteko ginkana bat izango da. Jolasteko, parte-hartzaileek ActionBound aplikazioa deskargatu beharko dute euren mugikorretan, eta saltokietako erakusleihoetan aurkituko dituzten QR kodeak eskaneatu. Saltokiz saltoki, emakume protagonisten inguruko galderei erantzunez osatuko dute herritarrek #O11erakusleihoak ginkana.

Gainera, berrikuntza gisa, udalek paperean inprimatzeko ginkana ere bidaliko dute ikastetxeetara, nahi izanez gero saltokiz saltoki erakusleihoak bisitatu eta ginkana osatzeko.



Komunikazio-ekintzak

Ekimenaren hasieran, udalerri bakoitzean prentsa-ohar bat bidaliko da komunikabideetara, herriko zein saltokik parte hartzen duten aipatuz eta guztira zenbat saltoki atxiki diren jakinaraziz.

Izen-emateak

Ekimen honetan izena emateko, bete honako galdetegia:

<https://form.jotform.com/252711883319360>



Izena emateko epea: 2025eko abenduraren 14ra arte.

*2026ko urtarrilaren 24tik aurrera emakume udalak zientzialariaren horma-irudia helaraziko dizue eta otsailaren 2rako prest egon beharko du zuen erakusleihoa.

Zalantzak eta informazioa:

- Toki Garapeneko teknikaria: Nerea Lazpiur Ibarzabal
- merkataritza@arrasate.eus
- 943 25 20 17

